UZTARITZEko HERRIA

PROCES-VERBAL DU CONSEIL MUNICIPAL DU JEUDI 28 MAI 2026

**Le vingt-huit mai deux mille vingt-six,** à dix-neuf heures, le Conseil Municipal d'UZTARITZE, régulièrement convoqué, le vingt et un mai deux mille vingt-six, s'est réuni au nombre prescrit par la loi, sous la présidence de **Monsieur Piero ROUGET, Maire.**

2026ko MAIATZAREN 28KO HERRIKO BILTZARRAREN AKTA.

**Bi mila eta hogeita seiko maiatzaren hogeita zortzian,** arratseko zazpitan, UZTARITZE-ko Herriko biltzarra, bi mila eta hogeita seiko maiatzaren hogeita batean ohiz gomitatua, bildu da legeak manatu kopuruan, **Piero ROUGET Jaun Auzapezaren** lehendakaritzapean.

| **Nombre de conseillers** *Kontseilari kopurua* | |
|---|---|
| **en exercice** *hautatuak* | 29 |
| **présents** *hor zirenak* | 25 |
| **procurations** *ahalordeak* | 4 |
| **votants** *bozkatu dutenak* | 29 |

Etaient présents / Hor ziren : M. ROUGET, Mme MARTY-CHALEON, M. MOULIA, Mme.IDIEDER, M. SERRANO, Mme. GOYHENECHE-CEDARRY, M. LASTIRI, Mme ROUMA, M. RUYS, Mme LARRIEU, M. MANGUIN, Mme. OURET-LALANNE, M. SOCODIABEHERE, Mme. DRIEUX, M. ESTEINOU, Mme. INCHAUSPE, M. URRUTIA, Mme. JOTHY, M. ETCHECOPAR, M. SARRATIA, M. CENDRES, M. DARQUY, Mme. GUILTÇOU-LARRONDE, M. DESGROLARD, Mme. DUFOURCQ-HARISTOY.

Etaient excusés / Barkatuak : M. BLAIN (procuration à M. LASTIRIA jaunari), Mme. ALZUYET (procuration à Mme. ROUMA andereari), Mme. GRUBERT (procuration à Mme JOTHY andereari), Mme. DI COSTANZO anderea (procuration à M. CENDRES jaunari),

Secrétaire de séance / Bilkurako idazkaria : Madame Isabelle OURET-LALANNE anderea

* APPROBATION A L'UNANIMITE DU PROCES-VERBAL DU CONSEIL MUNICIPAL DU 30 AVRIL 2026

*Ensemble pour Ustaritz : dans le PV, dans votre intervention, vous dites que vous avez bien de ne pas nous écouter. Mais nous voulions savoir à quelle occasion, vous nous aviez écouté vous et la majorité précédente. Quand vous avez été élus, vous avez dit que vous alliez écouter l'opposition mais vous dites, ici que nous avons toujours tort ? Enfin, c'est ce qui est écrit sur le PV. Nous le relevons, C'est juste une remarque.*

*UB : c'est votre interprétation, l'idée ce n'est pas de refaire le débat. Votre interprétation est erronée et fausse et nous aurons tout le loisir de vous démontrer le contraire.*

* 2026KO APIRILAREN 30EKO HERRI KONTSEILUKO AKTAREN ONARPENA AHO BATEZ.

*Ensemble pour Ustaritz: bilduman, zure hitz hartzean, erran duzu ongi jokatu duzula guri kasu ez eginik. Baina jakin nahi genuke noiz egin diguzuen kasu, zuk eta aitzineko gehiengoak. Hautetsia izan zinelarik, erran zenuen oposizioari kasu eginen zeniola; orain, aldiz, erraten duzu beti oker garela? Hori da bilduman idatzia dena. Ohar bat da, besterik gabe.*

*UB: Hori zure interpretazioa da, ideia ez da eztabaida berriz egitea. Zure interpretazioa okerra da, gogotik erakutsiko dizugu ez dela hala.*

## * AFFAIRES GENERALES

### 1- DESIGNATION DES MEMBRES DE LA COMMISSION LOCALE D'EVALUATION DES CHARGES TRANSFEREES (CLECT)

Monsieur le Maire présente le rapport suivant,

## * GAI OROKORRAK

### 1- EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAK – TRANSFERITU KARGUEN EBALUAKETA TOKIKO BATZORDEKO KIDEEN IZENDATZEA.

Auzapez jaunak ondoko txostena aurkezten du,

A la suite de la délibération du Conseil de la Communauté d'Agglomération Pays Basque (CAPB) du 24 avril 2026 relative à la composition de la commission locale d'évaluation des charges transférées (CLECT) et à l'adoption de son règlement intérieur, chaque commune adhérente a été sollicitée pour qu'elle désigne son représentant titulaire et son représentant suppléant.

Il est rappelé que cette commission procède à l'évaluation du montant des charges et des recettes financières transférées à la CAPB correspondant aux compétences dévolues.

Après en avoir délibéré, le Conseil Municipal à l'unanimité :

- DESIGNE Monsieur Piero ROUGET en qualité de délégué titulaire et Madame Sandra IDIEDER en qualité de délégué suppléant.

* URBANISME – VOIRIE – TRAVAUX

2- CONVENTION DE SERVITUDE AVEC ENEDIS POUR L'IMPLANTATION D'UNE CANALISATION ELECTRIQUE NECESSAIRE A L'INSTALLATION D'UNE BORNE I.R.V.E- PARCELLES AR N° 594-595 – PARKING D'ASTOLOBERRIA

Monsieur Serrano présente le rapport suivant :

En vue de la mise en place d'une Infrastructure de Recharge pour Véhicules Électriques (borne I.R.V.E) sur le parking d'Astoloberria (gare routière), et de son raccordement au réseau électrique, ENEDIS prévoit l'implantation d'une canalisation électrique sur les parcelles communales AR n° 594-595 constituant le parking.

ENEDIS dans le cadre d'une convention de servitude pourra notamment établir à demeure dans une bande de servitude de 3 mètres de large, 2 canalisations souterraines sur une longueur totale de 5 mètres ainsi que ses accessoires.

A titre de compensation forfaitaire et définitive, ENEDIS s'engage à verser à la Commune, lors de l'établissement de l'acte notarié, une indemnité définitive et forfaitaire de dix euros (10 €).

La convention est prévue pour la durée des ouvrages qui la concerne et pour celle de toute autorisation qui pourrait lui être substituée.

Après en avoir délibéré, le Conseil Municipal à l'unanimité :

Transferitu Karguen Ebaluaketa Tokiko Batzordea osatzeari buruz eta bere barne araudia onartzeari buruz, Euskal Hirigune Elkargoak bere 2026ko apirilaren 24ko deliberoaren bidez, kide diren herri guziei galdatu die beren ordezko titularra eta hunen ordezkoa izendatzea.

Oroitarazia da batzorde honek duela, EHEari eman eskumenen arabera, kargu transferituen eta diru sartze transferituen estimazioa egiten.

Luzaz deliberatu ondoren, Herriko kontseiluak, aho batez :

- IZENDATZEN DITU, Tituludun ordezkari gisa : Piero ROUGET jauna eta ordezko ordezkari gisa : sandra IDIEDER anderea.

* HIRIGINTZA – OBRAK – BIDEAK

2- ENEDIS-EKIN BIDE-ZORRERAKO HITZARMENA IBILGAILU ELEKTRIKOEN KARGATZEKO GUNE BATEN EZARTZEKO BEHARREZKOA DEN HODI ELEKTRIKOEN EZARTZEKO - AR N° 594-595 LURSAILAK –ASTOLOBERRIA APARKALEKUA

Serrano jaunak gaia aurkeztu du:

Astoloberria aparkalekuan (autobus geltokian) ibilgai elektrikoen kargatzeko gune baten ezartzeko eta sa elektrikora lotzeko, ENEDISek aparkalekua osatze duten AR n° 594-595 herriko lursailetan hodi elektrikoe ezartzea aurreikusten du.
Bide-zorrerako hitzarmenari jarraiki, ENEDISek, metroko zabalerako zintan, lurpeko 2 hodei ezartze ahalko ditu lursail horietan; orotara 5 metro luze izane dira, eta osagarriak ere ezartzen ahalko dizkie.

Horren truke, zenbateko finkoan eta behin betik notario-agiria eginen delarik, ENEDISek herriari, euroko ordainsaria emanen dio (10 €).

Hitzarmena obren garairako eta hitzarmenaren ord baliatu daitekeen baimen orori dagokion garairal pentsatua da.

Luzaz deliberatu ondoren, Herriko kontseiluak, aho batez :

- Auzapez jaunari dagokion bide zorrerako hitzarmenaren izenpetzeko BAIMENA EMATEN DU.

- **AUTORISE** Monsieur le Maire à signer la convention de servitude correspondante

## 3- MISSION D'ASSISTANCE À MAITRISE D'OUVRAGE POUR L'ÉTABLISSEMENT DES BILANS ET DE LA STRATÉGIE OPÉRATIONNELLE DU PROJET D'AMÉNAGEMENT DU QUARTIER HERAURITZ : DEMANDE D'ACCOMPAGNEMENT PAR LA COMMUNAUTÉ D'AGGLOMÉRATION PAYS BASQUE

Monsieur Moulia présente le rapport suivant :

La commune d'Uztaritze a souhaité mener une réflexion sur l'aménagement et le développement du quartier Herauritz compte tenu des nombreux enjeux identifiés pour le devenir de ce quartier et le cadre de vie de ses habitants : nécessité d'augmenter la capacité d'accueil de l'école publique (inclusivité, bilinguisme), d'améliorer les mobilités au profit aussi des modes doux, de prendre en compte le projet de modernisation des installations de l'établissement médicosocial UGECAM qui détient un important tènement foncier dans le quartier.

La première phase de l'étude urbaine a été validée en comité de pilotage élargi daté du 25 septembre dernier (avec notamment le comité de quartier et les acteurs majeurs de la vie collective qui le composent). Cette première étape a permis de définir, sur les moyen et long termes, une stratégie globale d'aménagement et a abouti à l'élaboration d'un plan guide de restructuration des espaces publics centraux et de fiches-action sectorielles opérationnelles.

Le projet urbain ainsi arrêté prévoit :
- d'intensifier le cœur du quartier en y proposant de nouveaux programmes d'espaces publics, de services, de logements et d'équipements autour des espaces du fronton, du château Larregienea et de l'école actuelle ;

- de connecter les équipements et lieux de destination entre eux et articuler ces programmes pour « faire quartier » en redéfinissant les mobilités au profit d'une sécurisation des modes doux ;

- de valoriser les éléments patrimoniaux (parc de l'UGECAM, château, école, murets, etc.) présents en les intégrant à une dynamique globale de requalification et d'amélioration des usages.

La stratégie d'aménagement étant définie, il convient désormais d'établir la stratégie opérationnelle du projet urbain en poursuivant la réflexion pour disposer d'éléments d'aide à la décision pour la mise en œuvre opérationnelle des différentes composantes du projet global d'aménagement. Il s'agit ainsi d'établir les bilans et montages des différentes opérations du plan-guide de ce secteur à enjeux de la commune.

Comme ce fut le cas lors de la première étude, la commune peut solliciter l'accompagnement de la Communauté d'Agglomération Pays Basque, qui propose un service d'ingénierie à l'écoute des demandes et des attentes des communes, capable de les conseiller en amont et durant toutes les étapes de leur projet en lien avec les politiques publiques communautaires. La Mission d'Ingénierie aux communes, au sein de la Direction de l'Aménagement (DGA Stratégie Territoriale, Aménagement et Habitat), a ainsi vocation à accompagner en « mode projet » la formalisation, le montage et le suivi de projets structurants sous maitrise d'ouvrage communale.

Cet accompagnement technique et administratif est complété par un accompagnement financier via un co-financement des études préalables. Ces études préalables, dites amont ou pré-opérationnelles, comprennent l'ensemble des études d'opportunité et de faisabilité nécessaires à la définition du préprogramme et du programme de l'opération considérée. Le Règlement d'Intervention relatif à l'Ingénierie aux communes, approuvé en Conseil Communautaire du 18 décembre 2021, encadre le dispositif d'aides dans un souci d'efficacité de l'action publique, d'équité et de solidarité territoriale.

Il est donc proposé de solliciter cet accompagnement auprès de la CAPB.
Après en avoir délibéré, le Conseil Municipal à l'unanimité :

- **APPROUVE** le lancement d'une mission d'assistance à maitrise d'ouvrage pour l'établissement des bilans et de la stratégie opérationnelle du projet d'aménagement du quartier HERAURITZ ;

- **DIT** que les crédits nécessaires au financement de cette étude sont inscrits au budget primitif de l'exercice 2026 de la commune ;

- **SOLLICITE** l'appui technique, administratif et financier de la Communauté d'Agglomération Pays Basque conformément au dispositif d'accompagnement des communes adhérentes formalisé au travers du Règlement d'Intervention en matière d'ingénierie aux communes ;

- **SOLLICITE**, le cas échéant, tout financement auprès d'autres potentiels financeurs ;

- **AUTORISE** le Maire ou son représentant à prendre toutes dispositions pour l'exécution de la présente délibération et à signer tous les documents relatifs à sa mise en œuvre dont la convention de cofinancement avec la Communauté d'Agglomération Pays Basque.

*<u>UB</u> : Nous les avons rencontrés à 2 reprises. La création de leur nouveau centre permettra d'enclencher tout le reste. Ils sont en phase Avant-projet sommaire. Le financement serait bouclé, ils seraient sur la perspective d'un dépôt de permis de permis courant 2ème semestre 2026 et un début des travaux courant 2027. Nous avons convenu que dès que le projet est figé, d'organiser une réunion publique dans les locaux de l'Ugecam et rappeler les conclusions du COPIL de septembre 2025.*

*<u>Ensemble pour Ustaritz</u> : ils n'ont pas besoin d'attendre de trouver un acquéreur pour pouvoir débuter les travaux*

*<u>UB</u> : a priori, non. Ils espèrent avoir des ressources soit de la location du château ou de la vente de terrain. Ils ont annoncé que leur budget était bouclé. C'est le dossier prioritaire sur l'Aquitaine. Derrière, par ricochet le déploiement des autres travaux. Pour préciser cette étude, il y a des grandes masses. Dans le projet, tel qu'il est dessiné aujourd'hui, il y a une nouvelle école, donc quid de l'école existante ? Quid du foncier communal qui est derrière. L'idée est de quantifier toutes les recettes potentielles en fonction des usages et de quantifier toutes les dépenses pour avoir une vision globale. Il faut définir secteur par secteur ce qui est peut-être fait. La CAPB nous accompagne sur l'élaboration de ce cahier des charges.*

*C'était un des éléments forts de notre programme, c'était de nécessairement faire avec le projet de l'Ugecam. Tel qu'on imagine les choses, c'est un projet d'envergure que le quartier s'apprête à accueillir ; il y aurait également une requalification de tous les espaces publics du cœur du quartier et le but de la commune est de faire profiter de ce parc arboré a tous les habitants du quartier. Nous avons l'ambition de rattacher à ce projet une approche écologique en terme d'énergie. Il faut mesurer ce que cela implique pour la commune. On a perdu trop de temps sur cette étude, c'est une priorité du mandat. Ce ne sera pas uniquement une opération publique, ou uniquement une opération ugecam. Il y aura forcément besoin d'initiative privé notamment pour le château. Ce sont des biens à préserver mais qui nécessitent des investissements très lourds, cette étude permettra d'aller chercher des prospects qui auront des idées sur la destination du château. Ce projet se fera avec tous les acteurs concernés du quartier.*

*<u>Ensemble pour Ustaritz</u> : quel est le timing ?*

*<u>UB</u> : ce qui est évoqué, c'est 3-4 mois, hors période estivale.*

*<u>Ensemble pour Ustaritz:</u> Zertan da UGECAMaren proiektua? Joan den irailaren 25etik ez dugu berririk.*

*<u>UB:</u> Bi aldiz bildu gara haiekin. Haien zentro berriaren sortzearekin, gainerateko guzia abiatzen ahalko da. Aitzin-proiektu orokorraren fasean dira. Finantzamendua bururatua omen da, baimena 2026ko 2. seihilekoan aurkeztekoa omen dute, obrak 2027an hasteko. Proiektua finkatua izan orduko Ugecam-en egoitzan bilkura publiko baten egitea eta 2025eko iraileko gidaritza batzordearen ondorioen oroitaraztea adostu dugu.*

*<u>Ensemble pour Ustaritz</u>: Ez dute erosle baten atzematearen beha egon beharrik obren abiatzeko.*

*<u>UB</u>: oraingo ustez, ez. Espero dute gaztelua alokatuz ala lursaila salduz irabaziak ukanen dituztela. Aurrekontua bururatua dela iragarri dute. Akitanian lehentasunezko gaia da. Ondotik eta ondorioz, beste obrak abiatuko dira. Ikerketa horren zehazteko, masa handiak daude. Proiektuan, orain marraztua den gisan, eskola berri bat bada; eta egungo eskolarekin zer? Horrekin doan herriko lursailekin, zer? Xedea da erabileren arabera irabazi posible guzien zenbatzea eta, halaber, gastu guzien zenbatzea, ikuspegi orokorraren ukateko. Sektorez sektore egin daitekeena zehaztu behar da. Elkargoak baldintzen bilduma horren apailatzen laguntzen gaitu.*

*Gure programaren funtsezko osagaietako bat zen Ugecam-en proiektuarekin egitea. Gauzak irudikatzen ditugun gisan, auzoan sartuko den proiektua zinez handia da; auzoaren bihotzeko eremu publiko guziak ere berrituko lirateke, eta herriaren helburua da auzoko biztanle guziei zuhaitz-parke horren baliatzeko paradaren ematea. Proiektu horri energiaren ikuspegitik ekologikoa izanen den planteamendua erantsi nahi diogu. Herriarentzat zer ondorio lituzkeen neurtu behar da. Ikerketa horrekin denbora sobera galdu dugu, agintaldiko lehentasun bat da. Ez da eragiketa publikoa soilik izanen, ezta ugecam eragiketa soilik ere. Ekimen pribatua ere beharko da, nahitaez, bereziki gazteluarentzat. Ondasun horiek babestu behar dira, baina horrek inbertsio handiak eskatzen ditu; ikerketa horrek lagunduko gaitu gazteluak ukan ditzakeen erabilpenei buruz ideiak ukanen dituzten solaskide posibleen bila joaten. Proiektua auzoan dagokien eragile guziekin batean eginen da.*

*<u>Ensemble pour Ustaritz</u>: Egutegia zein da?*

*<u>UB</u>: 3-4 hilabeteko epea aipatzen da, uda kanpo.*

*Ensemble pour Ustaritz : et derrière, il y aura forcément une modification du PLU ?*

*UB : elle sera effectivement nécessaire pour la réalisation du projet*

*Ensemble pour Ustaritz : Nous n'avons pas vu cette étude inscrite dans le budget ?*

*UB : le budget communal est régi en M57 et nous avons donc voté la fongibilité des chapitres, il y a donc une variable de 7.5% entre chapitres. Dès que l'arrêté sera signé, une communication sera faite en conseil municipal et cela sera annoncé.*

*Ensemble pour Ustaritz : enfin, nous avons constaté une mise en sécurité du moulin de Haitze. Une DP a été déposé sans être passée en commission d'urbanisme. Pouvez-vous nous donner des informations.*

*UB : la DP c'est une mise en sécurité. L'acquéreur est venu nous rencontrer avec l'équipe technique qui le suit. Le projet est de refaire une toiture car il y a un risque d'effondrement. Le projet de l'acquéreur n'est pas clairement défini car il y a beaucoup de contraintes. Dès que nous aurons des éléments, ce dossier sera bien évidement présenté en commission d'urbanisme.*

*Ensemble pour Ustaritz: Eta ondotik, THP bortxaz aldatuko da?*

*UB: Beharko da, bai, proiektua gauzatu ahal izateko.*

*Ensemble pour Ustaritz: Ikerketa hori ez dugu aurrekontuan ikusi.*

*UB: Herriaren aurrekontua M57 motakoa da; beraz, atalen birbanagarritasuna bozkatu genuen, eta atalen artean %7.5eko tartea dugu. Erabakia izenpetu orduko, herriko kontseiluari jakinaraziko zaio eta iragarriko da.*

*Ensemble pour Ustaritz: Azkenik, Haitze eiherari segurtasun neurriak ezarri zaizkiola ikusi dugu. Aitzinetiko aitorpen bat aurkeztu da, hirigintza batzordetik pasatu gabe. Informazioak ematen ahal dizkiguzue?*

*UB: Aitzinetiko aitorpena segurtasun neurrien ezartzeko da. Erosleak guregana jo du, harekin lanean ari den talde teknikoarekin. Proiektua teilatua berregitean datza, lurreratzeko arriskua baita. Eroslearen proiektua ez da argiki zehaztua, hertsapen anitz baitira. Osagai gehiago ukan orduko, gaia hirigintza batzordeari aurkeztuko diogu, bistan da.*

## * FINANCES – RESSOURCES HUMAINES

### 4- GARANTIE AU VU D'UN CONTRAT DE PRÊT

Madame idieder présente le rapport suivant :

Vu les articles L 2252-1 et L 2252-2 du Code général des collectivités territoriales

Vu l'article 2305 du Code civil ;

Vu la délibération n°7 du Conseil municipal du 11 décembre 2025 rapportée par la présente délibération ;

Vu le Contrat de Prêt n°187162 en annexe signé entre PAYS BASQUE AMENENAGEMENT ci-après l'Emprunteur, et la Caisse des dépôts et consignations ;

Article 1 : L'assemblée délibérante de de la commune d'Uztaritze accorde sa garantie à hauteur de 40) pour le remboursement d'un Prêt d'un montant total de 408 112.00 euros souscrit par *l'emprunteur auprès de la Caisse des dépôts et consignations, selon les caractéristiques financières et aux charges et conditions du Contrat de prêt n°187 162 constitué de 1 ligne de prêt.*

La garantie de la collectivité est accordée à hauteur de la somme en principal de *163 244.80* euros

## * FINANTZAK – GIZA BALIABIDEAK

### 4- MAILEGU KONTRATU BATEN BERMEA

Idieder andereak gaia aurkeztu du:

Lurralde Elkargoen Kode Nagusiko L.2252-1 eta L.2252-2 artikuluak ikusirik;

Kode zibilaren 2305 artikulua ikusirik;

Ikusirik 2025eko abenduaren 11ko Herriko Kontseiluaren 7. deliberazioa, deliberazio honen bidez ezeztatua dena;

Hemendik aitzina Mailegatzailea deituko dugun PAYS BASQUE AMENAGEMENT-ek eta Caisse des dépôts et consignations kutxak sinatu 187162 Mailegu Kontratua kontuan izanik;

1. artikulua: Uztaritzeko herriko deliberazio-biltzarrak %40ko bermea ekartzen du, Mailegatzaileak Caisse des dépôts et consignations kutxarekin sinatu 408 112.00 euroko maileguaren itzultzeko, mailegu lerro bakarreko 187 162 mailegu-kontratuko diru ezaugarriei eta kargu eta baldintzei jarraiki.

Elkargoaren bermea honela osatua da: 163 244.80 euroko zenbateko nagusia, gehi mailegu-

augmentée de l'ensemble des sommes pouvant être dues au titre du contrat de Prêt.

Ledit contrat est joint en annexe et fait partie intégrante de la présente délibération.

Article 2 : La garantie de la collectivité est accordée pour la durée totale du Contrat de Prêt et jusqu'au complet remboursement de celui-ci et porte sur l'ensemble des sommes contractuellement dues par l'Emprunteur dont il ne se serait pas acquitté à la date d'exigibilité.

Sur notification de l'impayé par lettre recommandée de la Caisse des dépôts et consignations, la collectivité s'engage dans les meilleurs délais à se substituer à l'Emprunteur pour son paiement, en renonçant au bénéfice de discussion et sans jamais opposer le défaut de ressources nécessaires à ce règlement.

Article 3 : Le Conseil s'engage pendant toute la durée du Contrat de Prêt à libérer, en cas de besoin, des ressources suffisantes pour couvrir les charges de celui-ci.

Après en avoir délibéré, le Conseil Municipal à l'unanimité :

- RAPPORTE la délibération n°7 du Conseil municipal du 11 décembre 2025 ;

- SE CONSTITUE caution bancaire auprès de la SPL à hauteur de 40% d'u prêt d'un montant total de 408 112 € souscrit par celle-ci auprès de la Caisse des dépôts et consignations. La garantie de la collectivité est accordée à hauteur de la somme en principal de 163 244.80 €, augmentée de l'ensemble des sommes pouvant être dues au titre du contrat de prêt.

- PRECISE que la garantie est accordée pour la durée totale du prêt soit 23 années et jusqu'au complet remboursement de celui-ci et porte sur l'ensemble des sommes contractuellement dues par la SPL dont elle ne se serait pas acquittée à la date d'exigibilité.

*Ensemble pour Ustaritz : nous n'avons pas tout compris dans cette demande prête au niveau du livret A*

*UB : Quand on fait un financement de ce type-là, on prend toujours comme point de repère le taux de livret A. C'est la caisse des dépôts et des consignations qui soutient toute cette opération.*

kontratuaren ondorioz zor izan ditzakeen zenbateko oro.

Kontratua deliberamendu honi eransten diogu eta deliberamenduaren parte da.

2. artikulua: Elkargoaren bermea Mailegu Kontratuaren iraupenerako onartu da, mailegua osoki itzuli arte. Mailegatzaileak kontratuaren arabera zor dituen eta diruaren itzultzeko epea bururatzean ordaindu ez dituen zenbateko guziei dagokie.

Caisse des dépôts et consignations kutxak gutun artamendatuz jakinarazi ondoren zorra ez dela kitatu, elkargoa engaiatzen da ahal bezain laster Mailegatzailearen ordez ordaintzera. Eztabaida-onurari uko eginen dio eta ezingo du argudiatu ordainketaren egiteko baliabideak eskas dituela.

3. artikulua: Kontseilua engaiatzen da, Mailegu Kontratuaren iraupen osorako, beharrez, kontratuari dagozkion karguen estaltzeko baliabide aski libratzera

Luzaz deliberatu ondoren, Herriko kontseiluak, aho batez :

- 2025eko abenduaren 11ko Herriko Kontseiluaren 7. deliberazioa EZEZTATZEN DU.

- SPLrentzat banku berme agertzearen ONARTZEN DU, Caisse des dépôts et consignations erakundearekin hartu duen 408 112 €ko maileguaren %40ko heinean. Herriaren bermeari 163 244.80 € zenbateko nagusia dagokio, eta horri mailegu-kontratuaren karietara zor izan daitezkeen zenbateko guziak gehitzen ahalko zaizkio.

- ZEHAZTEN DU bermea maileguaren iraupen osorako onartzen dela, hots 23 urterako, eta dirua osoki itzuli arte, eta SPLek kontratuaren arabera zor dituen eta behar den epean ordainduak ez lituzkeen zenbateko guziei dagokiela.

*Ensemble pour Ustaritz: A liburuxkari buruz prest den galde horretan ez dugu dena ulertu.*

*UB: Gisa horretako finantzamenduak egiten direlarik, A liburuxkaren tasa hartzen da beti erreferentziatzat. CDC kutxak du eragiketa osoa sostengatzen.*

5- CREATION D'UN EMPLOI PERMANENT (RECRUTEMENT DE PERSONNES EN SITUATION DE HANDICAP)

Madame Idieder présente le rapport suivant :

Elle expose que les collectivités territoriales et leurs établissements ont la possibilité de recruter par contrat des personnes reconnues handicapées bénéficiaires de l'obligation d'emploi instituée par l'article L5212-13 du code du travail.

Ce mode de recrutement n'est pas ouvert aux personnes ayant la qualité de fonctionnaire.

L'agent est recruté pour une période correspondant à la durée du stage prévue par le statut particulier du cadre d'emplois correspondant à l'emploi sur lequel il est recruté. Le contrat peut être prolongé du fait des congés (autre que les congés annuels). En effet, l'article 7-2 du décret du 10 décembre 1996 prévoit deux cas de figure dans lesquels le contrat est prolongé :

- Lorsque la durée des congés rémunérés, hors congés annuels, accordés durant le contrat, dépasse le dixième de la durée globale initialement prévue du contrat, le contrat est prolongé d'autant.

- Lorsque le contrat a été interrompu pendant plus d'un an du fait de congés successifs de toute nature, hors congés annuels, l'agent peut être invité, à l'issue de son dernier congé, à accomplir de nouveau l'intégralité du contrat.

De même, lorsque l'agent exerce ses fonctions à temps partiel durant le contrat, ce dernier est prolongé à due proportion.

Contrairement aux règles de droit commun applicables aux agents contractuels de droit public, le contrat ne peut pas prévoir de période d'essai.

A l'issue du contrat, l'appréciation de l'aptitude professionnelle de l'agent par l'autorité territoriale est effectuée au vu du dossier de l'agent et après un entretien de celui-ci.

L'autorité territoriale disposera alors du choix suivant :

1- *Titularisation* : si le co-contractant est déclaré apte à exercer les fonctions, l'autorité territoriale procède à sa titularisation.

2- *Renouvellement* : si le co-contractant, sans s'être révélé inapte à exercer ses fonctions, n'a pas fait la preuve de capacités professionnelles suffisantes, l'autorité territoriale prononce le renouvellement du contrat pour la même durée que le contrat initial,

5- ENPLEGU IRAUNKOR BATEN SORTZEA (AHALMEN URRIKO PERTSONEN ENPLEGATZEA)

Idieder andereak gaia aurkeztu du:

Idieder andereak azaldu du lurralde elkargoek eta dagozkien erakundeek laneko kodeko L5212-13 artikuluak finkatu enplegu-betebeharra aitortua duten ahalmen urriko pertsonak enplega ditzaketela. Enplegatze molde hori ezin da funtzionario direnentzat baliatu.
Ematen zaien enpleguari dagozkion enplegu-esparruaren araudi berezian aurreikusi ikastaldiaren iraupenerako enplegatzen dira agenteak. Kontratua oporraldiengatik luza daiteke (urteko oporraldiak kanpo). Alabaina, 1996ko abenduaren 10eko dekretuak, 7-2 artikuluan, zehazten du bi kasutan luza daitekeela kontratua:

- Kontratu bitartean eman opor ordainduen iraupenak, urteko oporretatik kanpo, kontratuan aurreikusi iraupen osoaren hamarrena gainditzen badu, kontratua iraupen beraz luzatzen da.

- Gisa orotako (urteko oporrak salbu) segidako oporraldi zenbaitengatik kontratua urte bat baino gehiagoz eten delarik, azken oporraldia bururatzean, langileari kontratu osoa berriz egitea proposatzen ahal zaio.

Halaber, langilea kontratu bitartean zati denborako lanean ari baldin bada, kontratua araberako proportzioan luzatzen da.

Zuzenbide publikoko kontratupeko agenteei dagozkien zuzenbide komuneko arauetan ez bezala, kontratu horietan ezin da entsegu aldirik izan.

Kontratuaren buruan, lurralde autoritateak langilearen gaitasun profesionala neurtzen du, langilearen txostena kontuan hartuz eta harekin elkarrizketa bat ukan ondotik.

Hala, lurralde autoritateak hautu hauek ditu:

1- *Tituludun egitea*: kontratupeko langilea funtzioen betetzeko gai dela jotzen bada, lurraldeko autoritateak titular bilaka dezake.

2- *Berritzea*: kontratupeko langileak, funtzioen betetzeko ezgai izan gabe ere, ez badu aski gaitasun erakutsi, lurraldeko autoritateak erabaki dezake kontratuaren berritzea, hastapeneko kontratuaren iraupen bererako, eskumena duen administrazio-batzorde parekideak aldeko iritzia emanez gero; hots:

- Langilearen titular egitea xede duen enplegu esparruko erabakitzaileak,

edo

après avis de la commission administrative paritaire compétente :

- Du cadre d'emplois au sein duquel l'agent a vocation à être titularisé,

Ou

- Du cadre d'emplois de niveau hiérarchique inférieur.

*3- Licenciement* : si l'appréciation de l'aptitude du co-contractant ne permet pas d'envisager qu'il (elle) puisse faire preuve de capacités professionnelles suffisantes, le contrat n'est pas renouvelé, après avis de la commission administrative paritaire compétente (CAP) pour le cadre d'emplois concerné. L'intéressé peut bénéficier des allocations d'assurance chômage en application de l'article L. 5421-1 du code du travail.

Au regard de ces éléments, Monsieur Le Maire rappelle que la Commune d'Uztaritze s'est engagée dans une démarche d'insertion des personnes en situation de handicap sur son territoire.

A ce titre, la collectivité a identifié un besoin et peut procéder à la création d'un emploi permanent adapté relevant de la catégorie hiérarchique B et relevant du grade de rédacteur à temps complet dont la durée hebdomadaire de service est fixée à 35 heures.

Il est donc proposé au Conseil Municipal d'approuver la création d'un emploi permanent à temps complet sur lequel il sera procédé au recrutement d'une personne en situation de handicap.

Vu le Code général des collectivités territoriales, notamment ses articles L.1111-1, L.1111-2,

Vu le Code général de la fonction publique, notamment ses articles L352-1 à L.352-6

Vu le Code du travail, notamment son article L.5212-13
Vu la loi n° 82-213 du 2 mars 1982 modifiée relative aux droits et libertés des communes, des départements et des régions, notamment son article 1 ;

Vu le décret n°88-145 du 15 février 1988 pris pour l'application de l'article 136 de la loi du 26 janvier 1984 modifiée, portant dispositions statutaires relatives à la Fonction Publique Territoriale et relatif aux agents contractuels de la fonction publique territoriale ;

Vu le décret n° 96-1087 du 10 décembre 1996 modifié relatif au recrutement des travailleurs handicapés dans la fonction publique pris pour l'application de l'article 38 de la loi n° 84-53 du 26 janvier 1984 ;

Vu le décret n° 2012-924, du 30 juillet 2012 portant statut particulier du cadre d'emplois des rédacteurs territoriaux.

- Azpiko hierarkia mailako enplegu esparrukoak.

*3- Kanporatzea*: kontratupeko langilearen gaitasunen neurtzean agertzen baldin bada ezin duela aski gaitasun profesional ukan, kontratua ez da berritzen, dagokion enplegu-esparruko eskumena duen administrazio-batzorde parekideak aldeko iritzia eman ondoan. Interesdunak langabezia saria eskura dezake, laneko kodearen L. 5421-1 artikuluari jarraiki.

Datu horiek kontuan harturik, Auzapez jaunak oroitarazi du Uztaritzeko herriak bere lurraldean ahalmen urritasuna duten pertsonen jendarteratzearen aldeko engaiamendua hartu zuela. Hala, herriak behar bat identifikatu du: komunikazio kargudun eginkizunen betetzeko, komunikazio kargudun enplegu iraunkor bat sor dezake, B hierarkia-kategoriakoa eta lanaldi osoko erredaktore gradukoa. Asteko zerbitzu lan denbora 35 orenetan finkatua da.

Beraz, herriko kontseiluari proposatu zaio denbora osoko enplegu iraunkor baten sortzearen eta enplegu horretan ahalmen urriko pertsona baten enplegatzearen onartzea.

Lurralde Elkargoen Kode Orokorra eta, bereziki, L. L.1111-1 eta L. 1111-2 artikuluak kontuan izanik;

Funtzio Publikoaren kode orokorra, bereziki, L352-1tik L.352-6rako artikuluak kontuan izanik;

Lanaren kodea eta bereziki L.5212-13 artikuluak ikusirik,

Herrien, departamenduen eta eskualdeen eskubide eta askatasunei buruzko 1982ko martxoaren 2ko 82-213 lege aldatua eta bereziki 1. artikulua ikusirik;

Lurraldeko Funtzio Publikoari buruzko araudi-erabakiak dakartzan eta lurraldeko funtzio publikoko kontratupeko langileei buruzko 1984ko urtarrilaren 26ko lege aldatuaren 136. artikuluaren gauzatzeko hartu 1988ko otsailaren 15eko 88-145 dekretua ikusirik;

1984ko urtarrilaren 26ko legearen 38. artikuluaren gauzatzeko funtzio publikoan ahalmen urriko langileen enplegatzeari buruzko 1996ko abenduaren 10eko 96-1087 dekretu aldatua ikusirik;

Lurralde erredaktoreen enplegu-esparru bereziari buruzko 2012eko uztailaren 30eko 2012-924 dekretua ikusirik;

Ahalmen urriko pertsonen gizarteratzeko desmartxa lagundu behar dela kontuan harturik;

Considérant la nécessité d'accompagner la démarche d'insertion de personnes en situation de handicap.

Après en avoir délibéré, le Conseil Municipal à l'unanimité :

- CREE au tableau des effectifs un emploi permanent adapté au grade de rédacteur du cadre d'emplois des rédacteurs territoriaux relevant de la catégorie hiérarchique B à raison de 35 heures/semaine.

- AUTORISE le recrutement sur l'emploi mentionné à l'article 1er d'une personne en situation de handicap sur le fondement de l'article L.352-4 du Code général de la fonction publique sur le grade de rédacteur, du cadre d'emplois de rédacteur territorial à temps complet dont la durée hebdomadaire de service est fixée à 35 heures pour une durée déterminée de 1 an.

- AUTORISE Monsieur le Maire à signer le contrat afférent à cet emploi

- PRECISE que les crédits nécessaires seront inscrits au budget principal 2026.

*Ensemble pour Ustaritz : quel est le taux de travailleurs handicapés sur la commune ?*

*UB : 6% des 75 agents titulaires qui représente 9 personnes en situation de handicap.*

6- SERVICE MEDIATHEQUE - CREATIONS DE POSTES :

Madame Idieder présente le rapport suivant,

Au vu de la mise en place de la future médiathèque, il est nécessaire de créer un poste de direction à temps complet à compter du 1er juillet 2026.

Il est proposé d'ouvrir ce poste sur les catégories A et B et sur les grades suivants :

Catégorie A : Attachés de conservation du patrimoine, Bibliothécaires territoriaux,

Catégorie B : Assistant de conservation, assistant de conservation principal de 2ème classe et de première classe.

Après en avoir délibéré, le Conseil Municipal à l'unanimité :

- DECIDE de créer un emploi permanent à temps complet sur les grades précités à compter du 1er juillet 2026.

Luzaz deliberatu ondoren, Herriko kontseiluak, aho batez :

- Langileen taulan komunikazio kargudun enplegu iraunkor baten SORTZEN DU, lurralde erredaktoreen enplegatu-esparruko erredaktore mailan, B hierarkia kategorian, astean 35 orenez.

- 1. artikuluan aipatu enpleguan ahalmen urriko pertsona baten enplegatzearen ONARTZEN DU, funtzio publikoaren kode nagusiko L.352-4 artikuluan oinarrituz, lurralde erredaktoreen enplegu-esparruko erredaktore mailan, denbora osoz; asteko lan denbora 35 orenekoa da, eta iraupena urte 1era mugatua.

- Auzapezari enplegu horri dagokion kontratuaren izenpetzeko BAIMENA EMATEN DU,

- Behar diren kredituak 2026ko aurrekontuan pentsatuak direla ZEHAZTEN DU.

*Ensemble pour Ustaritz: Zein da herrian ahalmen urriko langileen tasa?*

*UB: 75 agente titularren %6; hots, ahalmen urriko 9 pertsona.*

6- MEDIATEKA ZERBITZUA – LANPOSTUEN SORTZEA:

Idieder andereak gaia aurkeztu du:

Mediateka berria plantan emanen denez, 2026ko uztailaren 1.etik goiti denbora osoko zuzendaritza lanpostu bat sortu behar da.

Lanpostu hori A eta B kategorietan irekitzea proposatzen zaizue, maila hauetan:

A kategorian: Ondarearen kontserbazio arduraduna, lurraldeko liburuzaina,

B kategorian: Kontserbazio laguntzailea, 2. mailako eta 1. mailako kontserbazio laguntzaile nagusia.

Luzaz deliberatu ondoren, Herriko kontseiluak, aho batez :

- 2026ko uztailaren 1.etik goiti aipatu mailetan lanpostu iraunkor baten sortzearen ERABAKITZEN DU;

- **PRECISE** que les crédits nécessaires sont prévus sur le budget 2026.

*<u>Ensemble pour Ustaritz</u> : Lors du CM du mois de janvier 2026, il a été question de créer deux postes et il n'était pas fait mention du poste de direction. Quand je regarde le effectifs 2025, il y a déjà une responsable. Elle est au courant qu'elle va avoir un directeur au-dessus parce que nous n'avons jamais parlé de recrutement d'un directeur.*

*<u>UB</u> : Effectivement en 2025, il y a bien une responsable de médiathèque. En janvier 2026, nous avons voté la création de 2 grades mais une seule personne in fine et notamment une ludothécaire. Il y a eu des évolutions dans le fonctionnement actuel de la Médiathèque. La personne qui était en responsabilité n'assure plus la direction de la Médiathèque. C'est pour cela que nous lançons cette offre en direction. Dans la fiche de poste, nous avons demandé qu'il y ait des compétences de ludothécaire. Nous aurons aussi la possibilité de former nos agents en interne au niveau de cette spécificité, si demain, la personne recrutée ne dispose pas de ces compétences -là.*

*<u>Ensemble pour Ustaritz</u> : l'Offre d'emploi n'est toujours pas en ligne sur le site emploi territorial. Pour une prise de poste au 1er juillet, c'est un peu court ?*

*<u>UB</u> : On n'allait pas sortir cette offre d'emploi avant de l'avoir adopté en Conseil Municipal.*

*<u>Ensemble pour Ustaritz</u> : Vous l'avez déjà fait.*

*<u>UB</u> : Sur ce mandat ?*

*<u>Ensemble pour Ustaritz</u> : non sur le mandat précédent et vous l'avez souvent fait.*

*<u>UB</u> : cela correspondait peut -être à des urgences ou a de la continuité de service publique qui impose de le faire.*

*<u>Ensemble pour Ustaritz</u> : si on prend un catégorie A, il est bien financé pendant un an.*

*<u>UB</u> : C'est sur 5 ans par pourcentage dégressif. Ce n'est pas que le poste qui est financé mais aussi l'extension de l'ouverture de la Médiathèque qui est financé.*

*<u>Ensemble pour Ustaritz</u> : Comme nous avons eu le privilège de visiter la Médiathèque, ça ne nous a pas fait changer d'avis sur la question. ; L'architecture est belle, il va falloir la faire vivre et justement ou en êtes-vous du recrutement des bénévoles ?*

- Behar diren kredituak 2026ko aurrekontuan pentsatuak direla **ZEHAZTEN DU.**

*<u>Ensemble pour Ustaritz:</u> 2026ko urtarrileko herriko kontseiluan, bi lanposturen sortzea aipatzen, eta zuzendaritza lanposturik ez zen aipatu. 2025eko langile taldeetan, bada jada arduradun bat. Badaki gainean zuzendari bat ukanen duela? Ez genuen aipatu zuzendari baten enplegatzea.*

*<u>UB:</u> 2025ean mediatekako arduradun bat bazen, bai. 2026ko urtarrilean, 2 heineko lanpostuen sortzea bozkatu genuen, baina azkenean pertsona bakar bat, bereziki ludotekaria. Mediatekaren egungo funtzionamenduan aldaketak izan dira. Arduradunak ez du gehiago Mediatekaren zuzendaritza bere gain. Horregatik abiatu dugu zuzendaritza posturako eskaintza. Postu fitxan, ludotekari gaitasunak ukan ditzan galdegin dugu. Enplegatuko dugun pertsonak gaitasun hori ez badu, langileak barnetik ere formatzen ahalko ditugu berezitasun horretara.*

*<u>Ensemble pour Ustaritz</u>: Lan eskaintza ez da oraino sarean, lurraldeko enpleguen webgunean. Uztailaren 1.ean hasteko, ez da laburxko?*

*<u>UB:</u> Lan eskaintza ezin genuen herriko kontseiluan onartu aitzin argitaratu.*

*<u>Ensemble pour Ustaritz:</u> Egin izan duzue.*
*<u>UB:</u> Agintaldi honetan?*

*<u>Ensemble pour Ustaritz</u>: Ez, aitzinekoan, eta maiz.*
*<u>UB</u>: Behar larrien betetzeko izan zen, beharbada, edo zerbitzu publikoaren jarraikitasunaren bermatzeko, horrelakoetan ezinbestean egin behar baita.*

*<u>Ensemble pour Ustaritz</u>: A kategoriako bat hartzen badugu, urte batez diruztatua izanen da?*

*<u>UB:</u> 5 urtez lagundua da, eta ehunekoa urte guziz apaltzen da. Ez da lanpostua bakarrik diruztatua: Mediatekaren irekitzearen handitzea ere finantzatua da.*

*<u>Ensemble pour Ustaritz:</u> Mediatekaren bisitatzeko pribilegioa ukan dugu, eta gaiaz ez dugu iritzia aldatu. Arkitektura ederra da, biziarazi beharko da; hain zuzen, zertan zarete urririk ariko diren laguntzaileen bilaketan?*

*<u>UB</u>: Hautagaitza deialdi bat egin dugu. Lan fasean gara, laguntzaileen parte-hartzearen antolatzeko.*

*UB : un appel à candidatures a été formulé. Nous sommes en phase de travail pour organiser à la participation des bénévoles.*

* TRANSITION ECOLOGIQUE ET ENERGETIQUE

7- MISE EN PLACE D'UNE AIDE A LA DESTRUCTION DE NIDS DE FRELONS ASIATIQUES

Madame Marty-Chaléon présente le rapport suivant :

Il est rappelé le caractère nuisible des frelons asiatiques (Vespa velutina) pour la biodiversité et leur importante prolifération sur le territoire français depuis son introduction en 2004. Cette espèce est aujourd'hui présente dans 90 des 96 départements métropolitains.

En conséquence, le développement de cette espèce nuisible est très rapide puisqu'un nid non traité peut générer 2 à 4 autres nids l'année suivante. Cependant, cette diffusion s'effectue souvent sur de courtes distances (quelques centaines de mètres). Dès lors, pour ralentir le développement du frelon asiatique sur notre commune, il est proposé d'inciter les habitants à détruire les nids qui se trouvent dans les propriétés privées des particuliers.

Il est proposé de mettre en place une aide forfaitaire de 50 € par nid détruit.

Les conditions à respecter sont les suivantes :

- Constat visuel de la présence d'un nid de frelons asiatiques attesté par un professionnel sur la propriété privée du particulier.

- Intervention d'une société spécialisée à la charge du particulier (liste SDIS)

- Transmission à la mairie d'une copie de la facture comportant toutes les mentions légales ainsi que la date et le lieu de l'intervention, accompagnée d'un RIB et d'un justificatif de domicile ;

- Versement par la Commune d'une aide forfaitaire de 50 € dans la limite d'une fois par an et par adresse.

Après en avoir délibéré, le Conseil Municipal à l'unanimité :

- APPROUVE la mise en place d'une aide pour la destruction des nids de frelons asiatiques ;

- APPROUVE le montant forfaitaire de ladite aide fixée à 50 € ;

* TRANSIZIO EKOLOGIKOA ETA ENERGETIKOA

7- LIZTOR ASIARREN HABIEN SUNTSITZEKO LAGUNTZA BATEN PLANTAN EMATEA

Marty-Chaléon andereak gaia aurkeztu du:

Liztor asiarrak (Vespa velutina) bioaniztasunari kalte egiten diola eta 2004an sartu zenetik Frantziako estatuaren lurraldean anitz hedatzen ari dela oroitarazi du. Espezie hori, egun, Frantzia metropolitanoko 96 departamenduetatik 90etan dago.

Ondorioz, espezie kaltegarri horren garapena zinez zalua da. Tratatzen ez den habia bakoitzak ondoko urtean 2 eta 4 habia artean sor ditzake. Hala ere, maiz hedapena distantzia ttipian egiten da (zenbait ehun metroko inguruan). Beraz, gure herrian liztor asiarraren garapenaren moteltzeko, proposatzen dizuegu biztanleen akuilatzea partikularren lur pribatuetan diren habien suntsitzera.

Suntsitu habia bakoitzarendako 50 €ko laguntza finkoaren ematea proposatzen dizuegu.
Horretarako, baldintza hauek bete behar dira:

- Profesional batek partikularraren lur pribatuan liztor asiar habia dagoela begiz baieztatu behar du.

- Sozietate berezitu batek (SDIS zerrendako batek) esku hartu behar du eta partikularrak du ordaindu behar.

- Herriko etxeari faktura helarazi behar zaio. Fakturan lege-ohar guziak eta esku hartzearen data eta lekua agertu behar dira. Bankuko nortasun agiria eta bizilekuaren frogagiria ere erantsi behar dira.

- Herriak 50 €ko laguntza ordainduko du, gehienez helbide bakoitzerako urtean behin.

Partikularrek baizik ezin dute dispositiboa baliatu.

Luzaz deliberatu ondoren, Herriko kontseiluak, aho batez :

- ONARTZEN DU liztor asiarren habien suntsitzeko laguntza baten plantan ematea.

- ONARTZEN DU laguntza finkoaren zenbatekoa; hots, 50 €.

- **APPROUVE** les modalités d'application de cette aide telles qu'elles sont définies par la présente délibération.

- **ONARTZEN DU** laguntza honen gauzatzeko baldintzak, deliberamendu honetan zehaztu diren gisan.

<u>* QUESTIONS ORALES</u>

*<u>Ensemble pour Ustaritz :</u>*

*« Nous avons vu que la communication au sein de la commune avait changé avec la nouvelle majorité municipale.*

*Vous avez récemment présenté sur Facebook en vidéo votre budget 2026 en oubliant les sujets sensibles comme la dépense d'environ 3 000 000 € consacrée à la médiathèque soit plus de 41 % du budget investissement de la commune pour 2026. Vous parlez aussi d'investissement voirie sans donner les chiffres car bien-sûr ceux -ci sont dérisoires avec un montant de 80 000€ dédié aux interventions urgentes.*

*Ces remarques effectuées, Mme Marty-Chaleon annonce une enveloppe complémentaire de 100 000€ aux 317 000€ dédiés aux dépenses d'énergie.*

*Ou apparaissent ces 100 000€ sur le budget 2026 ?*

*Mme Marty-Chaleon annonce également « une enveloppe de 271000€ investis en 2026 et 2027 » pour financer les voies douces. Nous n'avons voté aucun plan pluriannuel d'investissement sur les voies douces ni d'AP/CP, pouvez-vous nous préciser d'où vient cette décision »*

*<u>UB :</u>*

*Avant de répondre précisément à vos 2 questions, nous vous permettons de faire 3 remarques :*

*Tout d'abord, alors que lors des précédents conseils, vous vous attachez à nous rappeler la nécessité de respecter les règles, ... Nous tenons à vous préciser que même si la question posée par la liste « Ensemble pour Ustaritz » ne respecte pas strictement le cadre du règlement intérieur du conseil municipal et plus particulièrement son article 5 sur les délais, nous ne tiendrons pas rigueur de cet écart au règlement en ayant acceptée celle-ci.*

*Deuxièmement, nous sommes heureux que vous ayez constaté une évolution de la communication réalisée par la mairie. La diversification des moyens de communication est une volonté de notre groupe*

<u>* AHOZKO GALDERAK</u>

*<u>Ensemble pour Ustaritz:</u>*

*"Ohartu gara gehiengo berria iristearekin herriko komunikazioa aldatu dela.*

*Berriki Facebooken zuen 2026ko aurrekontuaren bideo bat aurkeztu duzue; gai korapilatsu batzuk ahantzi dituzue, hala nola mediatekari lotu 3 000 000 €ko gastua; hots, 2026ko herriaren inbertsio aurrekontuaren %41 baino gehiago.*
*Bideen arloko inbertsioak ere aipatu dituzue, zenbakirik eman gabe; alabaina, bistan da, irrigarriak dira: presazko esku hartzeendako, 80 000€.*

*Ohar horiek egin ondotik, Marty-Chaleon andereak iragarri du 100 000€ko zenbateko osagarria gehituko zaiela energia-gastuetarako pentsatu 317 000€-ei.*

*Non agertzen dira 100 000€ horiek 2026ko aurrekontuan?*

*Marty-Chaleon andereak bide goxoen finantzatzeko "2026an eta 2027an inbertitu 271 000€-ko zenbatekoa" ere iragarri du. Ez dugu bide goxoei buruzko urte anitzeko inbertsio planik bozkatu, ez AP/CP-rik ere. Zehaztu dezakezu erabaki hori nondik heldu den? »*

*<u>UB:</u>*

*Zure bi galdeei zehatz ihardetsi aitzin, 3 ohar eginen ditugu:*

*Hasteko, aitzineko kontseiluetan arauen errespetatzearen beharra oroitarazi diguzue, baina zehaztu nahi dizuegu « Ensemble pour Ustaritz » zerrendak egin galdeak ez duela herriko kontseiluaren barne araudia zorrotz betetzen, bereziki epeei buruzko 5. artikulua. Hala ere, ez dugu zurrun jokatuko arauditik urrundurik, galdea onartuko baitugu.*

*Bigarrenik, pozten gara, herriko etxeak komunikazioan egin duen aldaketaz ohartu baitzarete. Komunikatzeko bideen aniztea gure taldearen xedea da; kanpainan horretara engaiatu ginen, eta uztariztar anitz horren beha ziren. Bideo horiek herriko ekintzen eta biztanleen hurbiltzeko*

*et un engagement de campagne attendue par de nombreux Uztariztar. Ces vidéos seront un des moyens déployés pour rapprocher les actions municipales et les habitants. Je tiens à remercier les services pour le travail précieux fourni dans ces actions.*

*Enfin, concernant vos 2 remarques sur la médiathèque et la voirie, difficile de résumer plusieurs centaines de lignes budgéraires en 3 minutes, à la fin de la vidéo nous invitons à venir visiter le site internet où tous les chiffres sont présents. Pour la médiathèque : nous n'avons jamais voulu éluder la réalité des chiffres de l'opération globale avec des communications régulières passées et à venir (notamment dans notre programme électoral, panneau chantier,).*

*Pour la voirie, le montant que vous mentionnez est réducteur car d'une part il y a d'autres montants concernant la voirie dans le BP voté (sécurisation Hardoia ; RAR Arruntza (~350 keuros). De plus, comme déjà abordé lors du CM du 30/04/2026, il y a des évolutions qui vont intervenir rapidement sur le budget conformément à la délibération n°10 de ce même CM, au titre de la fongibilité autorisée par la M57 et des délégations conférées au maire pour procéder à des virements de crédits de chapitre à chapitre. Dès leurs réalisations, j'informerai le conseil municipal de ces mouvements de crédits dans le cadre du relevé de décisions.*

*Pour revenir à vos 2 questions :*

1. *Concernant les 100 000€ pour l'énergie. Comme évoqué en commission finances et en conseil municipal l'enveloppe du chapitre 60612 Energie-électricité a été augmentée de 100 000 € l'amenant à 317 000 € pour prendre en compte le contexte international incertain.*
2. *Concernant l'enveloppe de 271 000€ pour 2026 et 2027 pour financer les voies douces. Cette enveloppe a été présentée en commission TEE au cours du précédent mandat et cette année en commission finances. Le montant de 271 000€ correspond à la mise en œuvre du schéma directeur cyclable intercommunal du pôle Errobi sur la commune avec les itinéraires n°18 (Collège SFX-Gare) et n°13 (Ustaritz-Jatxou-Halsou).*

*baliatuko bitarteetako bat izanen dira. Zerbitzuak eskertu nahi ditut, ekintza horietan egin lan baliosagatik.*

*Azkenik, mediatekari eta bideei buruzko zure 2 oharrei dagokienez, zaila da ehunka aurrekontu-lerro 3 minututan laburbiltzea. Bideoaren bukaeran, jendea webgunearen kontsultatzera deitzen dugu, zenbaki guziak hor baitira.*

*Mediatekarentzat: eragiketa orokorraren zenbakien errealitatea ez dugu sekula saihestu nahi izan, pasatu diren ez etortzekoak diren komunikazioetan (bereziki gure hauteskunde programan, obren panelean...).*

*Bideei dagokienez, aipatu duzun zenbatekoa murriztailea da: batetik, bozkatu aurrekontuan bideiari buruzko beste zenbateko batzuk badira (Hardoian segurtasun neurrien ezartzea; Arruntzako RAR (~350 k euro). Horrez gain, 2026/04/30eko herriko kontseiluan jada aipatu bezala, aurrekontuan laster aldaketak izanen dira, herriko kontseilu ber horren 10. deliberamenduari jarraiki, M57ak baimentzen duen birbideratzea eta auzapezari atal batetik bestera ordainketen egiteko eman baimena direla eta. Horiek egin orduko, erabaki-zerrendaren baitan, herriko kontseiluari kreditu-mugimendu horien berri emanen diot.*
*Zure galdeei ihardetsiko diet:*

1. *Energiarendako 100 000€-ez. Finantza batzordean eta herriko kontseiluan aipatu bezala, energia-elektrizitatea 60612 atalari dagokion zenbatekoari 100 000 € gehitu zaizkio, 317 000 €-ra eramateko, nazioarteko testuinguru ziurgabea kontuan hartzeko.*
2. *Bide goxoen finantzatzeko 2026an eta 2027an inbertitu 271 000€-ko zenbatekoari dagokionez. Zenbateko hori TEE batzordean aurkeztu zen aitzineko agintaldian, baita aurtengo finantza batzordean ere. 271 000€ko zenbatekoa Errobiko lurralde eremuaren herri arteko bizikletendako norabide eskemaren obratzeari dagokio, 18. ibilbidean (SFX kolegioa-Geltokia) eta 13. ibilbidean (Uztaritze-Jatsu-Haltsu).*

*Ensemble pour Ustaritz : Vous présentez un budget 2026 et vous parlez d'une opération 2027, c'est cela que l'on ne comprend pas. Quand on voit la communication, on a dépensé 317 000€ à la dépense des énergies auxquels on a rajouté 100 000€. C'est cela qui est diffusé et on le comprend comme cela. Effectivement, c'était 237 000e l'année dernière et 317000€ cette année, on arrive à peu près à 100 000€*

*UB : les prévisions sur l'année à date ou on a fait le budget sont un peu inférieurs à l'année dernière compte tenu des tarifs qu'il y avait à ce moment – là ; on anticipe le risque de volatilité des tarifs et on ajoute à cette révision 100 000€. On a souhaité de nous prévenir du risque. C'est bien une enveloppe de 100 000 e et pas d e80 000€.*

*Ensemble pour Ustaritz : mais c'est comme c'est dit sur la vidéo. Ce n'est pas très clair.*

*UB : Effectivement, j'ai ressorti le script. L'exercice de résumer un budget municipal e trois minutes, c'est un exercice d'équilibriste. Et nous pouvons entendre la mauvaise compréhension, la confusion et le manque de clarté. C'est pour cela qu'en fin de vidéo, nous invitons à se rendre sur le site ou l'ensemble du budget est consultable.*

*Pour compléter ce qu'a dit Piero pour les pistes cyclables, je vous renvoie aux comptes-rendus de la commission TEE de septembre, octobre 2024 et mars 2025. Vous rechercherez aussi dans les conseils municipaux, nous avons voté l'engagement d'aller au bout de notre engagement d'aménagement cyclable et de bénéficier des effets de levier amenés par les aides publiques.*

*Ensemble pour Ustaritz : La délibération 18 aurait déjà dû être terminé d'après le conseil municipal dont tu fais allusion. C'était pour 2025 au niveau de la réalisation.*

*UB : on a effectivement débité un peu plus tard et nous avons obtenu de la part des financeurs publics un délai supplémentaire pour pouvoir réaliser les travaux.*

*Ensemble pour Ustaritz : Après cette nouvelle forme de communication, c'est sympa, vous avez un communicant, il faut l'utiliser. Vous en avez déjà fait deux, quelle sera la périodicité de ces petites vidéos ? Par contre, petite remarque, cette dernière vidéo de 3 minutes 31 était un peu longue, on zappe à un moment.*

*UB : L'idée est de vulgariser quelque chose qui n'est pas forcément accessible à tout le monde et le présenter de façon pédagogique. Pour la médiathèque, c'était mettre en valeur le travail des agents de la Médiathèque. Pour répondre à votre question, nous n'avons pas encore de plan de communication pour l'entièreté du mandat et quand une idée nous semble pertinente, on s'en saisit et on monte une vidéo.*
*Ensemble pour Ustaritz : en tout cas, cela révèle certains talents d'acteurs.*

*UB : il y a surement des choses imparfaites mais l'objet est de travailler sur la communication et essayer de toucher le public le plus largement possible et au travers de ces vidéos, on essaie de toucher un public qui a des pratiques différentes ; et nous avons des retours plutôt positifs. La vidéo a plus de 9500 vues, et les commentaires sont plutôt positifs*

*Ensemble pour Ustaritz : nous l'avons vu 8 000 fois*

* COMPTE-RENDU DE DELEGATION

* ORDEZKARITZEN BILDUMA

*COMMUNICATIONS DU MAIRE ET DES ADJOINT

* AUZAPEZAREN ET AUZAPEZORDEEN KOMUNIKAZIOAK